

Merkatuaren Segmentazioa

Beste edozein negoziotan moduan, gurearen oinarria bezeroa da, kasu honetan gimnasioa erabiltzea nahi duten guztiak. Gimnasioa 16 urtetik gorakoentzat izango da, horrela gazteenek ere erabili ahal izango dute. Edonork erabil ditzazke gure zerbitzuak, langile helduek, neska-mutil gazteek eta beste alde batetik, hirugarren adineko agureentzat ere zerbait egitea pentsatu genuen, zerbitzu espezializatu bat bezala, gure profesionalen laguntzaz, ibilaldi eta mugikortasun araketak esakiniko dizkiegu, horrela adinekoei lagundu ahal diegu eta beraienezat entretenimendu mota bat ere izango da. Bestalde, gehien bat pentsatu genuen, osasun arazoak dituztenentzat eskaintzea zerbitzu hau, bizitza hobea bat eramaten laguntzeko. Puntu hau indartzeko, bazkide izateko aukera ere emango dugu, hilean 20€ ordainduta eskuratuko da baimen hau. Gure bazkide zerbitzuak denetarik eskainiko du; entrenamendu pertsonalizatuak, spa eta masaje zerbitzuak, gure merchandising-a erosteko dendarako sarbidea, etab. Irizpide geografikoen aldetik, gimnasioak herriguneen erdialdean izango dira, lantegi, bulego eta etxebizitza guztiak aurkitzen diren lekuetan, bezeroek ahalik eta sarbide errezena izateko. Laburtuz, eskeintzen dugun Fitness Vital gimnasioaren zerbitzua, berezia da, inoiz aurretik ikusi ez diren makinak erabiltzen ditugu, bertan lan egiten duten profesionalak primerakoak dira eta motibazio handia daukagu jendea lagundu ahal izateko eta bizitza hobea bat aurrera eramateko.